



2024UDOS0010

Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2024/06/27

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 27/06/2024

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Sal6n de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:**Alkatea / La Alcaldesa** Andoni Alvarez Lete**Zinegotziak: / Concejales:**

EH-Bildu

Xabier Fond6n Pajares
Garazi Usandizaga Zubiria
Iosu Mateo Torrillos
Haizea Barandiaran Zubillaga
Diego Barrasa Ruiz
Larraitz Arriola Larrarte

PSE-EE

Maidier Lainez Lazcoz
Jos6 Luis Verdasco Gutierrez
Ascensi6n Parr6n Peguero
Aritz Alkain L6pez
María Bel6n Moreno M6ndez

EAJ-PNV

Imanol Goenaga Egibar
Idoia Mikelez Alonso
M^a Sagrario Ruiz Fern6ndez

Elkarrekin Podemos Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	0000010
Eguna	2024/06/27
Hasiera	19.00
Amaiera	19.32

Idazkaria:

Unai Rekondo P6rez

KontuhartzaileaMyriam Lizaso
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:Marta Lasa Goñi **EH Bildu****Gai Zerrenda:**

- 2024/05/13(e)an egindako batzarraldien akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileen aldaketa behin-behineko izaeraz onartzea.
- 2024/05 zk espediente kreditu aldaketa.
- Osoko bilkurari 2024/1259 zk Alkatearen Ebazpena berrestea.
- Dedikazio osoa eskatzen duten karguak zehaztu eta baita dedikazio partziala izango duten karguen akordioaren aldaketa.
- Elkarlanerako eta korrdinaziorako hitzarmen, Gureak Lanean, G. Inklusio Fundazioarekin eta Atzegirekin, Paulo Berriak programari

Orden del Día:

- Lectura y aprobaci6n, si procede, de los borradores de las actas de las sesiones celebradas el 13/05/2024.

Parte Dispositiva

- Aprobaci6n, con car6cter inicial, de la propuesta de modificaci6n de las bases reguladoras de las ayudas econ6micas para actuaciones de mejora energ6tica en edificios y viviendas en Andoain.
- Expediente modificativo de cr6dito n^o 05/2024.
- Ratificaci6n por el Pleno de la Resoluci6n de Alcaldía n^o 1259/2024.
- Modificaci6n del acuerdo de cargos que requieren dedicaci6n exclusiva, así como dedicaci6n parcial.
- Convenio de colaboraci6n y coordinaci6n con Gureak Lanean, G. Inklusio Fundazioa y Atzegi, referente al programa Pauso Berriak.



buruzkoa.

- | | |
|---|---|
| 7. Ekialde hurbileko muturreko indarkeria egoerari buruzko adierazpen instituzionala. | 7.- Declaración institucional sobre la situación de extrema violencia en oriente próximo. |
| 8. Adierazpen instituzionala: Ekainak 28, LGBTIQ+ Harrotasunaren eguna. | 8.- Declaración institucional: 28 de junio, Día del Orgullo LGTBIQ+ |

Kontrola

9. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1142 zenbakidunetik 1466 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 13. aktatik 18 aktara.
10. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 9.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1142 y la nº 1466 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el acta nº 13 al acta nº 18.
- 10.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eraten da.

1. 2024/05/13(e)an egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2024/05/13 datako bazterraldiei dagozkien aktak irakurtzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontutan harturik, onartutzat eman dira.

2. Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileen aldaketa behin-behineko izaeraz onartzea.

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2022ko ekainaren 30ean egin zuen batzarrean, hasierako onespina eman zion Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileari. Aipatu ordenantza argipideketa publikora eta interesatuen entzutera jarri zen, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez zirenez, behin betikoz onartutzat geratu zen aipaturiko plenoko akordioan ezarritakoaren arabera, eta hori berori jendaurrera jakitera eman zen toki errejimenaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatuaren indarrez. Oinarrien behin betiko testua 2022ko irailaren 20ko 178 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2023ko maiatzaren 2an egindako bileran, aipaturiko oinarrien aldaketa onartu zuen. Aldaketaren helburua honakoa zen: oinarri horietan aurreikusitako dirulaguntzak gizarte-intereseko elkarteei emateko aukera jasotzea eta egokiak irizten ziren beste gauza batzuk aldatzea. Aipatu ordenantza argipideketa publikora eta interesatuen entzutera jarri zen, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez zirenez, behin betikoz onartutzat geratu zen aipaturiko plenoko akordioan ezarritakoaren arabera, eta hori berori jendaurrera jakitera eman zen toki errejimenaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatuaren indarrez. Oinarrien behin betiko testua 2023ko abuztuaren 21eko 160 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta bere akats-zuzenketa 2023ko urriaren 4ko 19 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Sustapen Ekonomiko, Emplegua eta Gaztedia Lansailak aipaturiko dirulaguntzak hainbat merkataritza eta zerbitzu-establezimenduei ematea proposatu da.

Ikusirik hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak eta Udaleko idazkariak 2024ko ekainaren 7an emandako aldeko txostenak.

Ikusirik, 2024ko ekainaren 17an berdintasun teknikariak emandako txostena.

Ikusirik Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneako Batzorde Irizpenemaileak 2024ko ekainaren



20ko bileran emandako aldeko irizpena.

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obrak, Ingurumena eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Gaur hemen aurkezten dugu, leiho eta galdarak aldatuz, efizientzia energetikoa hobetzeko diru-laguntzen araudian aldaketa bat.

“Diru-laguntza hauek 2022an jarri ziren martxan eta aurten proposatzen dugun aldaketa, Enpleguko Sailak proposatutakoa. Aurrerantzean, gehitzen dira merkataritza eta zerbitzu establezimenduak. Zehazki, beirazko itxiturak ordeztzea edo kristalezko kanpoko arotzeria berritzea, bai leihoak edo atea.

“Hau izango litzake guztia, gainontzeko oinarri guztiak, berdin mantentzen dira.

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehena: Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako diru-laguntzen oinarri arautzaileen aldaketa behin-behineko izaeraz onartzea, honela:

a) **Sarrera:** Hirugarren atalean laguntzen oinarriek bost jarduera-ildo dituztela jaso eta atal berri bat sartu, non kristalezko itxiturak (leihoak eta kanpoko atea) jartzeko merkataritza eta zerbitzu-establezimenduetarako laguntzak emateko aukera aurreikusten den.

b) **3. artikulua. Onuradunak.**

3.4 atal berria jasotzea, honako idazkera honekin:

“3.4.- *Azken bezeroarekin edo herriko bizilagunekin barrean zuzena duten txikitazko merkataritza jarduerak (EJZ kodeak: 64-65). Pertsonentzako zerbitzuak (EJZ kodeak: LAE 82-83, 841-842, 94, 97).*”

c) **5. artikulua. Eremua.**

5.3 atal berria jasotzea, honako idazkera honekin:

“5.3.- *Merkataritza eta zerbitzu-establezimenduetarako laguntzak:*

- *Kristalezko itxiturak jartzeko (leihoak eta kanpoko atea).*”

d) **8.2.c) artikulua: Erantzukizunpeko berariazko adierazpena.**

Atal berri bat sartzea, konpromiso hau jasoz:

“*Jarduerak indarrean dagoen araudiarekin bat etorri behar du, lizentziari, udal jarduerari ekin aurreko jakinarazpeni eta jardueraren lanbide jarduerari eragin diezaioketen bestelako alderdiei dagokienez.*”

e) **9.3 artikulua.**

c) atal berri bat sartzea, eman beharreko dirulaguntzen artean merkataritza eta zerbitzu-establezimenduetarako dirulaguntzak jasoz.

Atal hori horrela idatzia geratuko da:

“*c) Merkataritza eta zerbitzu-establezimenduetarako laguntzak.*

- *Beirazko itxiturak ordeztzea.*

Beirazko itxiturak berritzeko laguntzaren zenbateko osoa itzuli beharrik gabeko dirulaguntza bat izango da, kontzeptu horrengatik egindako inbertsioaren kostu subentzionagarriaren %30ekoa. Nolanahi ere, 1.200 euro gehienez establezimendu bakoitzeko.”

f) **I. Eranskina.**

a) atala aldatzea, horrela idatzia geratuko dena:

“*a) Etxebizitzetan eta merkataritza eta zerbitzu-establezimenduetan kristalezko kanpoko arotzeria berritzea (leihoak eta leihoko atea).*

Ohiko etxebizitzaren jabeentzako, gizarte-intereseko elkarrekin eta merkataritza eta zerbitzu-establezimenduentzako laguntza partikularra.

Diruz laguntzeko moduko jardueratzat hartuko dira kanpoaldeko beirazko arotzeriaren ordezkapenak, baldin eta berokuntza-esparruak edo -gelak kanpoko inguruetik energia-eraginkortasun handiko beste batzuekin bereizten badituzte, etxeko eta merkataritza sektoretan energia-konsumoa murrizteko helburuarekin.

Nolanahi ere, etxebizitzak eta merkataritza-establezimenduak Andoingo udalerrian egon behar du. Etxebizitzaren kasuan, ohiko okupazioa etxebizitzak izan behar du.”

Bigarrena: Administrazio-espeditentza 30 eguneko epean jendaurrean jartzea, interesdunek



espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren webgunean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz.

Hirugarrena: Epea horretan alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onarpenerako erabakia hau behin betikoa bihurtuko da.

3. 2024/05 zk espediente kreditu aldaketa.

“Kreditu transferentzi eta kreditu gehigarrien (Sareko 2024-KALD-000006-00 eta 2024-KALD-000007-00) bidezko kreditu aldaketaren 2024/05 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.”

Besteak beste, kontuan izanda:

- Hezkuntza eta Kulturako proposamena (34.285,99€)
- Langileria, Antolakuntza eta Barne Araugintzako proposamena (50.000,00€)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu transferentzia eta gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak ikusita non bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. eta 24. artikuluetan ezarritakoarekin.

Era berean, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2024/06/18ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Espediente bakarra den arren, kreditu aldaketa bi modutara egingo da.

“Batetik, transferentzi bidez eta bestetik, gerakinetik hartuko da. Kopurua, guztira 84.000 eurokoa da. Bertan, besteak beste, Ondarretako, Basteroko, Musika Eskolako, Haur Eskolako ekipamenduak, ekipamenduak hornitzeko erabiliko da diru hori, eta baita ere informatikako ekipoa eta zerbitzariak berritzeko. Azken hau 50.000 euroko kopuruarekin izango da.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Buenas tardes. Ya lo trasladamos cuando se establecieron los presupuestos, sobre todo, referidos al último importe que acaba de citar el señor Álvarez con respecto a los 50.000 euros de los equipos informáticos, que no entendíamos que esa partida estuviera a 0, pues no tenía ningún sentido, y bueno pues hoy el tiempo nos da la razón y, se trae el modificativo de crédito correspondiente. Pero sí, eh, bueno, pues lógicamente estamos en las fechas que estamos, y bueno pues entendemos que vamos con retraso, porque se tenía que haber hecho esto antes, entendiendo que la renovación de los equipos informáticos es necesaria todos los años, y en ese sentido hay que destinar un importe para ello. Por lo cual ya dijimos que no nos parecía que estas partidas fueran a 0, y como hemos dicho, pues el tiempo nos da la razón. Eskerrik asko.”

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Argitze aldera, aurreikuspena Informatika Saisetik zen, udan, abuztuan eta irailean nahi zuten hau egin eta gaur kreditu aldaketa hau eginda, abuzturako izango dute dirua eta daukagun lan egutegiaren barruan eta aurreikuspenen baitan egingo da, eta Informatika Saisetik adierazi zaigunez, ez du beraien antolaketan inungo atzerapenik ekarriko, beraz, guk ez daukagu iritzi berdina behintzat gai honetan.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien



modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulakako laburpen honen arabera:

Kreditu transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo Kredituak	Murrizketa	Amaierako Kreditua
2	Gastuak Ondasun Arrunta eta Zerbitzuetan	6.000,00	300,00	5.700,00
	Guztira	6.000,00	300,00	5.700,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo Kredituak	Murrizketa	Amaierako Kreditua
6	Inbertsio errealak	0,00	300,00	300,00
	Guztira	0,00	300,00	300,00

2.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulakako laburpen honen arabera:

Kreditu Gehigarriak

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	Inbertsio Errealak	83.985,99€
	Kreditu Gehigarriak Guztira	83.985,99€

Finantzaketa

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
8 (Sarrerak)	Finantza Aktiboak	83.985,99€
	Guztira	83.985,99€

3.- Udal aurrekontuaren dirulaguntza eranskinaren aldaketa proposatu delako, jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez badira eranskinaren aldaketa erabakiaren hau behin betikotzat joko da.

4.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako geinerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

4. Osoko bilkurari 2024/1259 zk Alkatearen Ebazpena berrestea.

Ikusirik, 2024/1259 zkko Alkatearen Ebazpena, zeinaren bidez, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren ordenantza fiskaleko 2. Artikuluko e) idatz-zatia aldatzen da, 2023ko apirilaren 20tik aurrerako ondorioekin.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Alkatetzako ebazpena da, zehazki, Foru Aldundiak duela aste batzuk ibilgailuen zergaren inguruan arau aldaketa bat egin zuen eta, egiten duguna da, gure araudia egokitu. Zehazki, ibilgailuei dagokion zergaren inguruan koefizientearen aldaketa bat.

“Desgaitasuna duten pertsonengan jarraitu beharreko tramite bat da eta bueno, besterik gabe, hona



ekartzen degu berrestera.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak ebazpena berresteko proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

5. Dedikazio osoa eskatzen duten karguak zehaztu eta baita dedikazio partziala izango duten karguen akordioaren aldaketa.

Andoingo Udalbatzarrak, 2023.07.06 Aparteko udalbatzarrean, dedikazioa osoa eskatzen duten karguak zehaztu zituen eta baita dedikazio partziala eta hauen gutxieneko dedikaziorako erregimena ere.

Ondoren, Andoingo Udalbatzarrak, 2024ko martxoaren 21ean eginiko bilkuran, Andoingo Udal Erregelamendu Organikoaren (ROM) aldaketari hasierako onespina ematea onartu zuen, honela:

“Ezabatu egiten da 30.1.a) artikulua azken paragrafoa, zeinaren testua honako hau baita: Denbora osoko edo zatikako jardunaldiak, zenbakiari eta portzentaiei dagokionez, Eudelek zehazten duenaren arabera izango dira. “

Andoingo Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketa hori behin-betiko bilakatu zen eta indarrean sartu da, 2024ko maiatzaren 29ko (103 zenbakia) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketa honek, ondorioz, indarrean zegoen Andoingo Udalaren Erregelamendu Organikoaren 30. artikulua azken paragrafoa indargabetzea ekarri du, zeinak ezartzen zuen, dedikazio eskusiboaren edo partzialaren araubidea, dedikazioaren kopuruari eta ehunekoei dagokionez, EUDELEk zehazten duena izango zela.

Halaber, aldaketa horri ekiteko arrazoitzat hartu zen, akordio hori onartu zenean ez zegoela dedikazio horiek eta horiei lotutako ordainsariak mugatzen zituen legezko araudirik, baina ondoren, 2016an, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea onartu zela, eta toki-erakundeen ordezkarien eskubide ekonomikoei eta arduraldi-araubideari buruzko alderdia arautu zuela arau honek. Besteak beste, honako hau ezarri zen 2/2016 Legean: arduraldi eskusiborako eskubidea aitortzen zaio alkateari, berriaz uko egin ezean, eta ordainsaria jasotzeko eskubidea eta Gizarte Segurantzaren alta ematekoa 1.000 biztanletik gorako udalerrietan; era berean, 10.000 biztanletik gorako udalerriek bermatu egin beharko dute oposizioa zinegotzi bat, gutxienez, egongo dela arduraldi eskusiboan. Araudi autonomiko horrek gaiari buruzko oinarritzko araudia garatzen du, zeina Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bidez onartu zen. Lege horrek toki-korporazioetako kideen ordainsari-araubide berri bat ezarri zuen, eta xedatu zuen Estatuko Aurrekontu Orokorrek urtero zehaztuko dutela toki-korporazioetako kideek ordainsari eta bertaratze kontzeptu guztiengatik guztira jaso dezaketen gehieneko muga (Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, foru-organoei dagokie ordainsari eta bertaratze guztien gehieneko mugak zehaztea, aipatutako 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz). Horrez gain, mugatu egiten du arduraldi eskusiboko toki-erakundeetako kargu publikodunen kopurua biztanleria-tartearen arabera, eta Andoingo Udalari dagokio, egungo biztanleria oinarri hartuta, gehienez ere bost kide izatea arduraldi eskusiboan. Araudi horrek, bestalde, ez du mugarik ezartzen arduraldi partzialeko erregimenean karguak bete ditzaketen zinegotzien kopuruari dagokionez.

Horrela, Udalbatzarraren 2023.07.06 akordio horretan xedatzen zenez, aurrerantzean, Udalbatzaren akordioek finkatuko dituzte dedikazio-kopurua eta dagozkien ordainsariak. Gainera, finkatze hori ez Erregelamendu Organikotik, baizik udalbatzarraren erabakien bidez egitea hobetsi zen. Behin Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketa indarrean sartu denez, Osoko Bilkurak, ondoren, dagozkion erabakia hartu ahal izango du dagozkion dedikazioak finkatzeko, indarrean dagoen legeriak ezartzen duen esparruaren barruan. Kasu honetan, orain proposatzen den akordioak, zenbait zinegotziren dedikazio portzenteak igotzea proposatzen du.

Eudelen Gobernagarritasun Akordioari jarraiki, Andoainen, dedikazio eskusiboa edo partziala duten zinegotzien kopurua alkateari, gobernu-taldeko zinegotzigo bati eta gobernuaren eta oposizioaren artean banatzeko beste hiru zinegotzigoetara mugatzen zen, eta hori ez da nahikoa, bai Udalak gero eta erantzukizun eta eginkizun gehiago hartu dituelako bere gain muga hori EUDELEk ezarri zuenetik, bai 2/2016 Legeak berak udalerriei eman zizkien eskumenengatik, bai Udala bere eskumeneko zerbitzu



publikoak ematean eraginkortasuna hobetzeko ezartzen ari den antolaketa-eredu berriagatik. Izan ere, Udala eredu berri bat ezartzen ari da, udal-mailan hiru arlo edo lantalde orokor ezartzean oinarritzen dena, bai eta hiru arlo horiek koordinatzeko eginkizuna duen organo bat ezartzean ere. Ildo horretan, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak adierazten du tokiko ordezkarien estatutuak bermatu egin behar duela beren agintaldia askatasunez betetzea.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2024ko ekainaren 18ko bileran emandako aldeko irizpena.

Fondón jaunak, Langileria, Antolaketa eta Barne Eraentzako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Dakizuen bezala, 2011. urtetik Andoingo udaletxeak funtzionatu du kargu politiko eta publikoen izendapenean Eudel-ek ezarritako irizpideak betez.

“Orain arte horrela izanda, baina bueno legealdiko urte honetan bueno ikusi dugu zailtasunak ditugula Gobernu kideok gure bizitza pertsonala eta profesionala kontziliatzeko. Hausnarketa bat abiatu genuen honen inguruan eta ikusi genuen dedikazioak igotzea zela aukera bat. Kontuan izanik Eudeleko irizpideak direla eta ez arauak.

“Egia da udaletxe honetan zorrotz bete direla azkeneko urteetan, baina ikusten dugu malgutasun bat eman behar zaiela. Gainera, beste herrietan galdeketak eginez ikusi dugu liberazioetan oso baxua gaudela.

“Hori dela, gaurkoan ekartzen dugun proposamena denontzako berdina izango zan. 0, 17tik 0, 26ko liberazio horietara pasatzera.”

Alkate jaunak, gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, arratsalde on. Bueno, con respecto al aumento de las liberaciones de las y los concejales que nos propone EH Bildu y como ya dijimos en el pleno de marzo, al grupo municipal socialista le surgen serias dudas con el proceso tal y como se ha planteado.

“Primeramente tenemos la impresión de que se está aprovechando como argumento el futuro modelo organizativo del ayuntamiento para disfrazar y justificar un aumento del número de concejales en nómina, y a su vez se nos ha informado que hasta septiembre no se va a implantar un nuevo modelo organizativo. Por lo tanto, tampoco entendemos que, si el motivo de esta propuesta es la carga de trabajo que se derivará de ello, se nos traigan estas liberaciones con dos meses de antelación.

“Para eso sí que nos estamos dando prisa. Nos hace dudar de la verdadera intención de esta propuesta, que incluso antes de que se apruebe la modificación del reglamento orgánico municipal que permitirá implantar el modelo organizativo, ya se estén aumentando estas liberaciones, más, si cabe, con el coste que ello conlleva. Creemos sinceramente que se ha empezado la casa por el tejado, y, por último, este gasto adicional que van a soportar las arcas municipales debido a su propuesta choca mucho con la preocupación que mostró el Alcalde hace un año por el alto gasto corriente de este ayuntamiento, y nos parece completamente contradictorio con las medidas que se dijeron que iban a poner en marcha para reducirlo.

“Dicho esto, desde el grupo municipal socialista también nos preguntamos cuál hubiese sido la reacción de EH Bildu, si el anterior Gobierno municipal hubiese planteado el aumento de los liberados de la manera en la que hoy nos la traen ustedes aquí.

“Como ya dijimos en el pleno de marzo, no compartimos ni las formas ni los tiempos con los que se ha gestionado este asunto. Pero aun así vamos a abstenernos en este punto, con la esperanza también de que se reconduzca la implantación del modelo de organización que, si bien consideramos necesaria, creemos que se puede mejorar y que aún estamos a tiempo. Gracias.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Guk esan behar dugu EAJ bezala, ez orain, baizik eta aurreko legealdietan, 2011, 2012 urte horien buelta horretan, austeritate edo kontrol neurri zorrotzak hartu zirenean, soldatak eta udal langileen ordainsariak nabarmen jaitsi zirenean, aldarrikatzen genuen hori ez zela soluzioa, aldarrikatzen genuen, lan horiek egoki remuneratuta edo ordainduta egon behar zutela.

“Bide horretan ere aldarrikapen horrekin koherentea izanda, eta koherentzia mantenduz, gure aldeko



bozka adieraziko dugu. Ulertzen dugulako aldarrikapen ulergarri bat dela, guk egiten duguna, oposizioa ginenean, gobernuaren parte ginenean eta orain ere tokatzen zaigu hori, uste dut, koherentzia horrekin, alde jokatzeko ulertzen dugulako politika orokorrean egiten degun guztiok. Bueno, baita ere duintasun batekin, ordainsaria izan dezaten bermatu behar dugu.”

Jarraian, Iparragirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Por nuestra parte también vamos a apoyar esta propuesta, aunque tras un debate interno, casi nos parece incluso insuficiente. En el caso de los partidos minoritarios, como es el nuestro, es muy difícil para partidos con un solo representante, dedicarle todo el tiempo que necesita este ayuntamiento y con una liberación que sigue siendo baja. “

Fondón jaunak, erantzuten du:

“ EAJ eta Podemos taldeei ezer gutxi esateko. Ba nik uste dut ikuspuntua pixka bat daukagula, ez, nahiko larri gabiltzala gure liberazioekin herriko kudeaketa eramateko.

“PSE-EE udal taldeari berriz, egia esan, inongo momentuan ez dut komentatu hemen antolaketa berriagatik denik. Batzordean esan genuen irailan, antolaketa berriarekin ikusiko genuela dieten gaia eta, egia esan, uztailera batzordera guztia eramango dugu eta hortaz hitz egingo dugu. Populista da esan duzuna. Eskatu dugun bakarra eta esan dugun bakarra da, gaur egun, hau da, urte honetan ikusi duguna beharrezkoa dugula gure bizitza pertsonala eta laborala aurrera eramateko behar dugu egoera minimo bat. Hau da, esan dugu bezela, zenbatekoak diran, ez gaude hemen esaten ari 2011ko liberazioetara etortzea nun, gogoratzeagatik, Alkatetzan zinetenian bazenituzten liberatu guztiak %100ean. Eskatzen ari garena da igoera minimo bat, herriko lan guztiak aurrera eramateko eta eramateko gure bizitza pertsonala, herri honetan, eta udaletxe honetako tamainako herri batek behar duen liberazio minimoa. Galdeketa egin ditugu beste herri batzuetan eta adibidez, Hernanin, gobernu taldeak sei liberazio eta erdi dauzka eta oposizioak 1,66. Bergaran 4,15, lau, lau eta laurden eta oposizioak bat. Tolosan, aurreko legealdian, EH Bildu eta EAJk adostuta adostuta zeuzkaten sei gehi, guztira zazpi dauzkate. Gu eskatzen ari gara lau eta erdikoa, liberazio minimo batekin. Jarraitu dezakezue diskurtso horrekin, hau da, aurreko legealdian guk, zer egingo genuen edo zer ez genuen egingo, ba bueno, guk esan dugu, zer den eskatzen duguna, zer da hona ekartzen deguna eta bozkatzera gatozena. “

Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Acabas de decir que aquí no se ha puesto de excusa la reorganización del ayuntamiento, pero parece ser que nos habéis leído la propuesta de acuerdo que habéis enviado, porque precisamente déjame terminar, por favor, porque precisamente lo que estamos votando y lo que se está debatiendo hoy aquí es eso.

“Aquí, y lo voy a leer, para que no quede ninguna duda, “como por el nuevo modelo organizativo que el ayuntamiento está implementando para mejorar la eficiencia de la prestación de servicios públicos de su competencia. De hecho, el ayuntamiento está implantando un nuevo modelo basado en el establecimiento de tres áreas o grupos de trabajo en general, a nivel municipal, así como de un órgano un órgano con funciones de coordinación de las tres tareas”. Obviamente, lo habéis puesto. Y esto es lo que vamos a votar hoy.

“Por otro lado, no sé si populismo, no sé si me has entendido o no. Nosotros no estamos en desacuerdo con el aumento de las liberaciones, por eso precisamente no vamos a votar en contra, lo que estamos en desacuerdo es en las formas, y es que precisamente la primera medida que se trae a este ayuntamiento no tiene que ver ni con los trabajadores municipales ni con el modelo de funcionamiento. Tiene que ver con la liberación de los y las concejalas. Por lo tanto, pues eso lo vemos .

“El ejercicio de sinceridad que habéis hecho, sobre conciliar la vida laboral y personal, nos parece muy bien. Al final cada grupo municipal reparte sus liberaciones como considera, exactamente igual que lo hacemos el resto.

“Con respecto a la comparativa que habéis hecho con otros pueblos, sí, efectivamente, EH Bildu tiene muchas más liberaciones en otros. El problema está que aquí, en 2011, se bajó a como lo habéis tenido hasta ahora. Entonces, bueno, ahora nos toca volver a aumentarlas.”



Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Matizatzeke. Guk, EAJ talde txikia izanik, matizatu nahiko genuke, ez daukagula liberazio oso bat, batez ere, andoaindarrek ulertu dezaten. Orain arte zinegotzi batek, liberazio erdia izan du, eta hemendik aurrera, hiru laurden edo %80 inguruko liberazio batekin, liberazio baten azpitik geundela. Eta gutxienez hori argitu nahiko nuke. Betiere, baita ere, gogoratu nahi dut talde guztiok daukagula aukera liberazio hori onartzeko, edo ez, hau da, norbait baita ere badago formula horren aurka, betiere ahalmena edo eskuduntza dauka, uko egiteko. Liberazioei buruz argitu nahi nuen bat, EAJ udal taldeak, ez daukala gaurkoz liberazio osorik.”

Lainez andreak, dio:

“Bueno, solamente por añadir, el número de liberaciones depende del número de votos conseguidos en cada legislatura, y eso se extrapola directamente al porcentaje que le corresponde a cada partido. Y con respecto a la conciliación, desde luego por nuestra parte vamos a estar siempre de acuerdo en que se tomen medidas al respecto, pero también queremos recordar que las personas que estuvimos aquí entre 2019 y el 2023, también nos tocó conciliar, y lo hicimos con esos porcentajes correspondientes.

“Con lo cual, bueno, pues cada uno lo ha llevado a su manera. Y es un poco lo que queríamos trasladar, porque estamos seguros que si en el 2019, si se hubiera propuesto el aumento de liberaciones, pues estamos seguro de todas las críticas que hubiéramos recibido al respecto, y bueno, pues tenemos que ser todos coherentes y consecuentes. Y también decirlo. Eskerrik asko.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

Lehena.- 2023.07.06 Aparteko udalbatzarrean hartutako akordioa, dedikazio osoa eskatzen duten karguak zehaztu eta baita dedikazio partziala eta hauen gutxieneko dedikaziorako erregimena ere zehaztekoa, aldatzea, eta ezartzea honako kargu hauek izango direla beren eginkizunak erabateko dedikazioan edo zatikako dedikazioan beteko dituztenak:

Erabateko dedikazioa:

—Alkatea, Udalhitzeko 21. mailari dagokion ordainsariarekin.

—Grupo Municipal Socialistas de Andoain-Andoaingo Sozialistak (PSE-EE) udal taldeko oposizioko zinegotzia, Udalhitzeko 20. mailari dagokion ordainsariarekin.

Zatikako dedikazioarekin:

-1. Alkateordea eta Hezkuntza eta Kultura eta ENBAko zinegotzi ahaldua, %70ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

- 2. Alkateordea eta Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza eta Zerbitzuetako zinegotzi ahaldua, %69ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

- 3. Alkateordea eta Gizarte Zerbitzuak eta Emakume eta Berdintasuneko zinegotzi ahaldua, %70ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila

- Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko zinegotzi ahaldua, %56ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

- EH Bildu talde politikoko zinegotzia, %46ko dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

- EAJ-PNV oposizio taldeko zinegotzia %79 dedikazio portzentajearekin. Udalhitzeko 20. maila.

- Grupo Municipal Socialistas de Andoain-Andoaingo Sozialistak (PSE-EE) udal taldeko oposizioko zinegotzia %32 dedikazio portzentajearekin, Udalhitzeko 20. mailari dagokion ordainsariarekin.

-Elkarrekin Podemos oposizio taldeko zinegotzia %26 dedikazio portzentajearekin.

Bigarrena.- Erabateko udal dedikazioa kasuan ordainsari horiek jasotzea bateraezina da Herri Administrazioen eta horien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuen kargurako beste ordainsariarekin, eta baita ere beste jardueren garapenarekin. Toki Erakundeetan dedikazio partziala duten kideen kasuan, ordainsari horiek jaso ahal izango dituzte, betiere jardun hori Administrazioan duten lanalditik kanpo betetzen badute. Hori guztia Herri Administrazioen Zerbitzurako Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Lege hori garatzen duen apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.



Hirugarrena.- Akordio hau 2024.06.1 datan, hau barne, indarrean sartuko da.

Laugarrena.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta udal iragarki tauletan

6. Elkarlanerako eta korrdinaziorako hitzarmen, Gureak Lanean, G. Inklusio Fundazioarekin eta Atzegirekin, Paulo Berriak programari buruzkoa.

Kontuan hartuz Adimen desgaitasuna duten pertsonen garapen, formazio eta parte hartze soziala bultzatuz leku komunitario eta bisibleetan elkarlana eta koordinazioa ezartzea Gureak Lanean, G. Inklusio Fundazioa y Atzegirekin sinatutako lankidetzaren Hitza 2024/06/30an amaitu egin dela.

Epe hori amaitu baino lehen, hitzarmeneko alderdiek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena beste lau urtez luzatzea.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Arauzintza Batzorde Irizpenemaileak 2024ko ekainaren 18ko bileran emandako aldeko irizpena.

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honakoa adierazi du:

“Aipatu mezu elektronikoaz bidali zaizueela gaur eguerdian eranskin edo adenda bat. Bozeramaile Batzordearen aipatu zen Batzordean aurkeztu zen proposamenetik, aipatu zen aldaketa bat proposatuko zela seguraski, Udalak egin beharreko ekarpena igotzea proposatuko zela. Beraz, horren baitan bidali zaizue adenda hori. Beraz, proposamena da, hitzarmena luzatzea, adenda horrekin batera.”

Jarraian, Fondón jaunak, Langileria, Antolaketa eta Barne Erauzintza Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gai honi buruz, esan, dagoeneko lau urteko hitzarmena dagoela eta beste lau urtez luzatzeko aukera dago, dakizuen bezela, hitzarmen honen baitan, desgaitasuna duen langile bat dugu gurekin lanean.

“Programa honen helburu nagusia, inklusio soziala erraztea da. Prezioa berrikusteko aukera zegoenez eta ikusita onartutako kantitateak ez zituela langilearen lan baldintzak bermatzen, ba prezioen eguneraketa bat egin da.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onartzea Gureak Lanean, G. Inklusio Fundazioa y Atzegi eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena luzatzea lau urterako, hau da, 2024/07/01etik 2028/06/30ra arte.
2. Akordio hau Kontuhartzaitzako udal lantzaileari helaraztea.
3. Hartutako erabakia Gureak Lanean, G. Inklusio Fundazioa y Atzegiren izenean diharduen Asier Vitoria Inchausti, jaunari jakinaraztea.

7. Ekialde hurbileko muturreko indarkeria egoerari buruzko adierazpen instituzionala.

Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aipatu beharra daukat hasiera batean bi mozio ezberdin zeudela, baina azkenean PSE-EE udal taldeak proposatutako mozioa oinarri hartuta, alderdien ekarpenekin adierazpen instituzionala adosteko gai izan garela. Eta orduan guztion artean irakurriko dugu adierazpen hau.”

Jarraian, Lainez andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, alde horretatik bakarrik eskertzea, azkenean denon artean lortu dugulako adierazpen instituzionala aurrera eramatea.

“Decía que sobre todo agradecer a todos los partidos, porque, bueno, gracias al esfuerzo de todos, pues conseguimos que hoy se lea una declaración institucional, que dice así.

“Declaración institucional sobre la situación de extrema violencia en Oriente Próximo.

“Cuando se cumplen 75 años del comienzo de la expulsión de la población palestina de su territorio y la progresiva ocupación ilegal del mismo por parte de Israel. En los últimos cuatro meses su ejército ha devastado completamente la mayor parte de Gaza y ha matado aproximadamente a 31.000 personas, de ellas 17.000 niñas y niños, según cálculos de Unicef, y ha dejado 70.000 heridos. Se calcula que otras



7.000 personas permanecen bajo los escombros. Más de la mitad de los edificios de viviendas, además de la mayoría de sus hospitales, escuelas e infraestructuras han sido destruidas.

“Los misiles y el cerco impuesto por Israel mantienen a la población sin servicio de agua, electricidad ni alimentos desde entonces, y la Agencia de Naciones Unidas para los Refugiados de Palestina en Oriente Próximo UNRWA ha denunciado que dos millones de personas, entre el total de dos millones, 300.000 de sus habitantes, ha sido expulsada de sus ciudades, mientras a día de hoy continúa sufriendo los bombardeos y la invasión militar terrestre. El ataque indiscriminado que el Estado de Israel está llevando a cabo contra la población civil palestina es inadmisibles y repudiable. La población civil, que nunca puede ser un objetivo militar, está bloqueada, en la que llaman la cárcel a cielo abierto más grande del mundo. Al mismo tiempo, nos preocupa, y mucho, la violencia crecientes Cisjordania ejercida por el ejército israelí y colonos judíos disparando de imam de manera indiscriminada, intimidando y destruyendo las propiedades de los palestinos. Esto último incluso ha sido reconocido el uno de febrero de 2024 por la Administración Biden.

“Ante esta situación calificada como de catástrofe humanitaria por las agencias de la ONU, del Pleno del Ayuntamiento de Andoain.

“**Primero:** Considera que ningún hecho, tampoco los cuentos de ataques terroristas de jamás del siete de octubre pasado contra la población civil, condenables, inadmisibles y repudiable, también, pueden justificar de manera alguna los ataques indiscriminados y colectivos contra la población civil palestina que está llevando a cabo el Estado de Israel, con el resultado de miles de muertos, la destrucción total del territorio de Gaza y el desplazamiento forzoso de toda su población.

“**Segundo:** Pide el alto al fuego total e indefinida, el cese del bloqueo de suministros básicos a la franja de Gaza y el retorno de la población a su territorio, así como el fin de los ataques contra la población palestina en Cisjordania, que se han recrudecido desde el pasado siete de octubre.

“**Tercero:** Exige al Estado de Israel la liberación inmediata de aquellos presos detenidos de manera arbitraria bajo el amparo de la detención administrativa, detención sin cargos ni juicio que puede renovarse indefinidamente. Alrededor de seis, 6000 palestinos han sido detenidos bajo este procedimiento, entre los cuales hay cientos de menores de edad, circunstancia que ha sido denunciada también por Amnistía Internacional.”

Jarraian, Mikelez andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, adierazpena irakurtzen jarraitzeko.

“**Laugarrena:** 2023ko urriaren zazpitik bere esku dituen baditu guztiak berehala askatzeko eskatzen dio. Hamas-eri.

“**Bostgarrena:** Nazioarteko legedia betetzea eta Israelgo Estatuak sistematikoki mespretxatu dituen Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak betetzea eskatzen du.

“**Seigarrena:** Laguntza humanitaria etengabe eta murrizketarik gabe sartzen uztea eskatzen du, herritarrei hura elektrizitatea, erregaia, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskuratzea berrezarrit.

“Era berean, Andoingo Udala prest agertu da Palestinatik datozen errefuxiatuak hartzeko. Babesa adierazi dio ere Nazio Batuen Erakundeak Palestinako errefuxiatuak artatzeko duen erakundeari eta Palestinarren alde lan egiten duten erakundeei dirua bideratzeko konpromisoa ere hartu du.

“**Zazpigarrena:** Gazako egoera jasanezina dela eta hondamendi humanitarioa are handiagoa gertatzeko arriskua dagoela ikusita, Europar Batasuna Israel Elkartzeko Akordioaren premiazko ebaluazioa egin dezala eskatzen diogu Europar Batasunari, giza eskubideen eta printzipio demokratikoen arloko harremanaren funtsezko puntuak betetzen ari diren iker dezan eta, bete ezean, neurri egokiak har ditzan.”

Jarraian, Barandiaran andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, adierazpena irakurtzen jarraitzeko.

“**Zortzigarrena:** Europar Batasunaren, israeldar eta palestinaren arteko bake integralerako plana babesten dugu, eskualdean bake iraunkorra ezartzeko eta egungo indarkeria egoerari aurre egiteko, bai eta erradikalizazio haundiagoa eta gatazka berriak ere.

“Plan integralak, besteak beste, aurre ikusten du Europar Batasunaren, Egiptoren, Jordaniaren, Saudi Arabiaren eta Estatu Arabiarren Ligaren arteko prestatzeko bake konferentzia antolatzea, Gazako gerrari,



baina baita, baina batez ere, Palestinaren eta Israelen arteko gatazkari ekiditeko.

“Horretarako, bake plan bat egingo da Israelentzat eta etorkizuneko Palestinako Estatu independentea, harentzat segurtasuna bermatu behar duena, eta bakea lortzen denean, zer mekanismo politiko eta segurtasun mekanismoa eta beste akordio eta proiektu jarriko diren abian ezartzeko.

“**Bederatzigarrena:** Palestinarren eta israeldarren bidezko asmoei erantzun bakarra emateko, bakean eta lankidetzan bideragarriak diren bi estaturen konponbidearen ikuspegia eta beharra babesten ditu, baita bakerako eta segurtasunerako funtsezko elementu gisa ere.

“Ildo horretan, Andoingo Udalak dei egiten die estatuei eta nazioarteko erakundeek Palestinako Estatuaren aitortza ofiziala egin dezaten.

“**Hamargarrena:** Ildo horretan, oso positibotzat jotzen du Espainiako, Irlandako eta Norvegiako estatuak gauzatutako Palestinako Estatuaren onarpena.

Eta espero dugu neurri hori beste estatu batzuek jarraitzea, Israeli presio egiteko modu bat izan dadin, erasoak berehala eten ditzan eta ezinbesteko bake prozesua berriro bultzatzen irmo lagun dezan.

“Ondorioz, Espainiako Erresumaren eta Israelen arteko harreman merkataritza amaitzeko eskatzen dogu. Armen Merkataritzari buruzko Tratatu batzuek eta Nazioarteko Justizia Auzitegiaren behin-behineko epaitzarekin bat etorriz, defentsa materiala eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologiak Israelera esportatzeko baimenak Gobernutik re bukatzea. Espainiako Gobernuak esportazio baimenak eteteko, aurrekariak kontuan hartuta, konparazio zain larriak ez diren krisi humanitarioaren aurrean eta arma merkataritza hori indarkeriaren gorakada bizkortzen ari dela kontuan hartuta.

“Horregatik guztiagatik, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu Israelekin arma merkataritza oro amaitzeko, bai esportazioak, erabilera bikoitzeko material denak barne, bai inportazioak.”

Jarraian, Iparraguirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, adierazpena irakurtzen jarraitzeko.

“**Decimoprimer:** Hace un llamamiento al Estado de Israel para que cumpla con las resoluciones del Tribunal Internacional de Justicia, en especial con la resolución del Jurado de la Haya, ante la denuncia presentada por Sudáfrica ante la Corte, en la que destacó la existencia de evidencias jurídicas suficientes para investigar si se trata de un caso de genocidio.

“Asimismo, pide al Estado de Israel que adopte medidas para acabar con el genocidio, al tiempo que te exige permitir la llegada de ayuda humanitaria a Gaza.

“**Decimosegundo:** Hace un llamamiento a la Unión Europea y a las organizaciones internacionales para que actúen sin descanso, en aras de lograr una paz estable y duradera en la región, que garantice la supervivencia en condiciones dignas y viables del pueblo palestino y la seguridad del Estado de Israel.

“**Decimotercero:** Apoya las manifestaciones pacíficas organizadas por las diferentes organizaciones por Palestina y hace un llamamiento a la ciudadanía de Andoain a participar en las mismas.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak adierazpena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

8. Adierazpen instituzionala: Ekainak 28, LGBTIQ+ Harrotasunaren eguna.

Barandiaran andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Adierazpen honetan ere alderdi guztien adostasuna bildu dugu. Jarraian, adierazpen instituzionala irakurriko dugu. Orain berri egin dugun bezala.

“Ekainaren 28an, LGTBI+ Harrotasunaren Egunean, harro gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harro gaude, gure bizitza, ez, harro gaude genealogia zeta harro, ele ge te Plus mugimenduaz.

“Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakera ezberdinek zein manipulazioak, eskuin muturreko diskurtso intoleranteak eta gorroto jarrekek CIS heteroarautik kanpo kokatzen diren bizitzak ezabatu nahi dituzten honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da nondik gatozen gogora ekartzea, ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Andoainera. Milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dugu

“Eraso. LGTBI+fobikoa. Salaketen datuak esponenzialki egin dute gora azken urteetan. LGTBI+



pertsonen inbisibilizazio eta bazterketak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan. Diskurtso patologia hitzaileak ugaritzen ari dira eta abar, eta ondorioz, gure bizitzak arriskuan daude.”

Jarraian, Parrón andreak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, adierazpena irakurtzen jarraitzeko.

“Ante todo, ante todo esto, organizarnos y luchará es imprescindible, en nuestro caso, desde las instituciones. Y es imprescindible establecer políticas públicas integrales y sólidas servicios basados en las perspectiva feministas, cauces para establecer mecanismos de protección colectiva y autodefensa.

Es hora de dejar de lado las políticas que son anecdóticas y poner el centro de esas que son estructurales. Estamos en ello y vamos a seguir fomentando en con la evaluación y con escucha.”

Jarraian, Mikelez andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Horregatik guztiagatik, Andoingo udalean konpromezua hartzen dugu, neurriak hartzen jarraitu, gure herriko LGTBI+ pertsonen bizitzan gaineko diagnostikoak egin eta honetan oinarritutako ekintza plan integralak abiatzeko.

“Prozesu hauek gure herriko LGTBI+ mugimenduko kideekin batera egiteko konpromezua hartzen dugu eta egon ezean, erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatze moduko sustatuko ditugu.”

Jarrian, Iparragirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Honetaz gain, deia egiten dugu ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko.

“Eta amaitzeko, LGTBI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu. Harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako.

“Gora ekainaren 28a”.

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak adierazpena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

9. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1142 zenbakidunetik 1466 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzara aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 1142 zenbakidunetik 1466 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

10. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkate jaunak, galdera, eskaerak eta proposamenak txanda ireki du eta parte-hartzerik ez da izan ez denez, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Amaitutzat emango dugu gaurko udalbatza. Berriki, Sanjuan festak ospatu ditugu, giro onean ospatu ere, eta herritarrak asteburu honetan izango ditugun Kaletxikiko festetara gonbidatu nahi ditugu. Ondo pasa festak eta asteburu on denei.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.32 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2024/06/27

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 27/06/2024

Alkatea

Idazkaria

